

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

sortu

ESPACIO

Galderak

FUTURE

ideas

Preguntas

URVIEHU

$E=mc^2$

DISCOVER

Ideiak

ecología

Solución

berrikuntza

Learning

Ikasi

CREATION

SOCIEDAD

Grekoa II USE 2018

www.ehu.eus

literature

40%

30%

60%





**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.**

A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

(5 puntu)

Apolodoro, Epitome VII, 31

Peneloperen iruzurra

Πηνελόπη δὲ ἀναγκαζομένη τὸν γάμον ὑπέσχετο ὅτε τὸ ἐντάφιον Λαέρτη πέρασ ἔξει, καὶ τοῦτο ὕφηνεν ἐπὶ ἔτη τρία, μεθ' ἡμέραν μὲν ὑφαίνουσα, νύκτωρ δὲ ἀναλύουσα. τοῦτον τὸν τρόπον ἐξηπατῶντο οἱ μνηστήρες ὑπὸ τῆς Πηνελόπης.

Galderak

- 1.1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: τοῦτον τὸν τρόπον ἐξηπατῶντο οἱ μνηστήρες ὑπὸ τῆς Πηνελόπης. (1 puntu)
- 1.2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἐξηπατῶντο. Joka ezazu aditz hori indikatiboko lehenaldi inperfektoan (boz ertaina). (0,5 puntu)
- 1.3. Izen honen analisi morfologikoa: ἔτη. Pluraleko deklinabidea. (0,5 puntu)
- 1.4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: ἀναλύουσα. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)
- 1.5. *Ilíada* eta *Odisea*. (1 puntu)
- 1.6. Aristofanes-en *Lisistrata*: obraren argumentua. (1 puntu)



Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

(5 puntu)

Lisias, Eratostenes-en heriotzaren defentsan, 23.

Eufileto etxetik irteten da

ὁ δ' Ἐρατοσθένης, ὃ ἄνδρες, εἰσέρχεται, καὶ ἡ θεράπαινα ἐπεγείρασα με εὐθύς φράζει, ὅτι ἔνδον ἐστί. κάγω εἰπὼν ἐκείνη ἐπιμελεῖσθαι τῆς θύρας, καταβάς σιωπῇ ἐξέρχομαι, καὶ ἀφικνοῦμαι ὡς τὸν καὶ τόν.

Galderak

1.1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: ἡ θεράπαινα ἐπεγείρασα με εὐθύς φράζει, ὅτι ἔνδον ἐστί.

(1 puntu)

1.2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἐπεγείρασα. Joka ezazu aditz hori indikatiboko orainaldian (boz aktiboan).

(0,5 puntu)

1.3. Hitz honen analisi morfologikoa: σιωπῇ. Hitz horren deklinabide plurala.

(0,5 puntu)

1.4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: ἔνδον. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.

(1 puntu)

1.5. Tragedia grekoa: Euripides.

(1 puntu)

1.6. Eurípides-en *Medea*: obraren amaiera.

(1 puntu)



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzeagatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.

Vitoria-Gasteiz, 2018.ko martxoa